

# AURKIBIDEA

1. URTEA ZENBAKITAN
2. PROGRAMAZIO ARTISTIKOA
3. BISITARIAK
4. HEZKUNTZA-JARDUERAK
5. GARAPENA ETA KOMUNIKAZIOA
6. MUSEOAREN ERAGIN EKONOMIKOA
7. PLAN ESTRATEGIKOA

## 1. URTEA ZENBAKITAN

Guggenheim Bilbao Museoaren 2000. urteko ekitaldiaren balantzeak oso emaitza positiboak erakutsi dizkigu, eta horietatik zenbaki garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

- Aurtengo programazio artistikoak Bilduma Iraunkorraren 8 aurkezpen eta aldi baterako 6 erakusketa izan ditu.  
Bilduma Iraunkorraren zortzi aurkezpenek xx. mendean panorama artistikoari buruzko ikuspegi zabala eskaini diote jendeari, teknika artistiko anitzetan zehar ibilbide bat eginez: nazioarteko artisten pintura eta eskulturatik hasi eta instalazio, argazki eta sorkuntza-lan pertsonaletaraino. Gainera, aldi horretan bertan aldi baterako sei erakusketa aurkeztu dira, horien artean aipatzekoak izanik David Salle eta Francesco Clementeren atzera begirakoak; artista gazteei eskainitako *Tximistaz Zauritutako Dorrea: Ezinezkoa Helburutzat* erakusketa; *Abangoardiako amazonak*, Errusiar abangoardiako emakumezko sei artistaren obra adierazgarriak bildu zituen; eta *Degasetik Picassora: pintoreak, eskultoreak eta kamera*, mende aldaketan izan diren artista ospetsuen obraren eta argazkiaren arteko lotura aztertutako zuena. Urtea *Motozikletaren artea* erakusketa ikusgarriaren luzapenarekin osatu zen, eta arte minimalistaren munduko bilduma pribatu garrantzitsuenari eskainitako aurkezpenaren instalazioarekin amaitu zen, hau da, *Pertzepzio aldakorrak: Guggenheim Museoaren Panza bilduma*.
- 2000. urtean izan diren bisitarien guztizko kopurua 975.000 izan da. 1999an gertatu zen bezala, 7 bisitaritik ia 6 (%82) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo etorritakoak izan dira eta bi bisitaritik 1 atzerritarra izan da (%46). 1997ko urrian inauguratu zenetik, Guggenheim Bilbao Museoak 3.600.000 bisitari izan ditu.
- Museoak guztira 145 enpresa ditu Kide Korporatiboen programan. 2000. urtean zehar, Guggenheim Bilbao Museoaren Kide Korporatiboen programak %10eko gehikuntza izan du, guztira 145 enpresa bilduz. Enpresa horietatik 41 babesleak dira, 15 enpresa ongileak eta 89 enpresa elkartuak.
- Guggenheim Bilbao Museoak dagoeneko 12.050 kide ditu Museoaren Lagunen erkidegoan. Kopuru honek Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunen erkidegoa Estatuko handiena izatera eraman du bai eta Europako hirugarrena izatera ere, Louvre eta Tate Gallery-ren atzetik. 2000. urtean zehar berrikuntza-indizea %88koa izan da.

- 2000. urtean zehar 238.000 pertsona izan dira Guggenheim Bilbao Museoaren hezkuntza-programen onuradun.  
Gaur egun, Museoak 42 hezkuntza-programa ditu.
- 2000. urtean zehar Museoak %75 baino gehiagoko autofinantzaketa-maila lortu du.  
Ekitaldi honetan, Museoak erdietsitako autofinantzaketa-maila %75 baino gehiagokoa izan da aurreko ekitaldikoaren antzera jarraitzen du, horrela erakunde kulturaletan ohikoak direnak baino askoz ere kopuru handiagoan baliabideak sortzeko duen gaitasuna sendotuz.
- Inauguratu zenetik, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskal Herriko ekonomian izan duten eragina 100.000 milioi pezetatik gorakoa izan da.  
Horietatik 15.000 milioi Euskal Ogasunetarako sarrera fiskal gehigarriei dagozkie, BEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta PFEZ kontzeptuetan. Gainera, Museoak batez beste urtero 4.000 enplegu mantentzen lagundu du.

## 2. PROGRAMAZIO ARTISTIKOA

2000. urtearen hasieran, Museoak Bilduma Iraunkorrako aurkezpen bat, *Pintura eta eskultura modernoak*, eta 1999ko urte amaieran inauguratutako aldi baterako bi erakusketa zituen: *Andy Warhol: A Factory* eta *Motozikletaren artea*. Azken hau 2000ko irailean amaitu zen eta gutxi gorabehera 900.000 pertsonak bisitatu zuten.

Bi erakusketa horiez gain, 2000. urtearen lehenengo bi hiruhilekoetan zehar aldi baterako hiru erakusketa inauguratu ziren. Horietatik lehena, *David Salle*, pintura figuratibo berrian adierazgarrietakoa den Ameriketako Estatu Batuetako artista baten obran oinarritu zen; *Francesco Clemente* erakusketak Italiako transbangoardiaren artista nagusietako baten atzera begirako interesgarria eskaini zuen; eta hirugarrena *Tximistaz Zauritutako Dorrea: Ezinezkoa Helburutzat* Museoaren espazioetarako propio sortutako artista gazteen obretan oinarritu zen.

Hirugarren hiruhilekoan zehar, Museoaren areto guztien itxura eta edukia aldatu ziren, alde batetik, ekainaren eta uztailaren artean inauguratutako Bilduma Iraunkorreko zortzi aurkezpenak biltzeko —*Europako abangoardiak; Amerika eta Europako gerraosteko artea; Pinturaren susperraldia: 1980ko hamarkada; Pop arte amerikarra; Sugimoto: erretratuak; Ellsworth Kelly, Agnes Martin, James Rosenquist, Jack Youngerman, Robert Morris: paper gaineko obrak; Richard Long; eta Anselm Kiefer*— eta, bestetik, oso interesgarriak izan diren aldi baterako erakusketa bi: *Abangoardiako amazonak*, Errusiako arte modernoaren bilakaerarako ezinbestekoak izan diren emakumezko artisten obrekin; eta mendearen aldaketako artista ospetsuen obran eta sorkuntza-prozesuan argazkiari emandako erabilera desberdinak aztertu zituen erakusketa, *Degasetik Picassora: pintoreak, eskultoreak eta kamera*.

Urtearen azkeneko hiruhilekoan, Guggenheim Bilbao Museoak *Pertzepzio aldakorrak: Guggenheim Museoaren Panza Bilduma* inauguratu du. Hau 2001eko apirilera arte bisitatu ahal izango den arte minimalista, kontzeptual eta ingurumen-arteari eskainitako aparteko erakusketa da.

Programazio hau arte bisualetan oinarritutako bi ziklorekin osatu da: *Zinema mexperimentala* eta *Erreferentzia-markoak: hedabideei buruzko gogoetak*. Hauek, batetik, Mexikoko zine esperimentalak aurkeztu eta, bestetik, telebista, argazki, zine, bideo eta irudiaren teknologiek gaur egungo gizartean duten eragina aztertzen zuten.

Ondoren, aldi baterako erakusketa bakoitza bisitatu duten pertsonen kopurua adierazten da:


<i>Andy Warhol: A Factory</i>	275.000 bisitari
<i>Motozikletaren artea</i>	870.000 bisitari
<i>David Salle</i>	317.000 bisitari
<i>Francesco Clemente</i>	314.000 bisitari
<i>Tximistaz Zauritutako Dorrea</i>	278.000 bisitari
<i>Abangoardiako amazonak</i>	283.000 bisitari
<i>Degasetik Picassora</i>	340.000 bisitari

Bere aldetik, Bilduma Iraunkorraren zortzi aurkezpenak aldi berean erakusgai egon zirenez 300.000 pertsonak baino gehiagok bisitatu zituzten.


### 3. BISITARIAK

2000ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, Guggenheim Bilbao Museoa 975.000 bisitari egin die harrera.

Bisitarien hilabeteroko eboluzioan aldaketa batzuk antzematen dira aurreko urtearekin konparatuz. 2000ko urtarrila eta apirilaren artean %25eko gehikuntza egon zen bisitarien kopuruan, *Motozikletaren artea* erakusketa zela eta. Maiatzean kopuruak behera egin zuen zenbait erakusketa kendu eta jarri behar izan zelako. Ekainean, uztailean eta abuztuan zehar, bisitarien kopurua ia bera izan zen bi urteetan, eta 2000ko irailean eta urrian berriro ere behera egin zuen, Museoaren bi heren itxi behar izan zirelako. *Pertzepzio aldakorrak: Guggenheim Museoaren Panza Bilduma* erakusketa muntatzeko.



Jatorri geografikoari dagokionez, bisitarien %82a Euskal Autonomia Erkidegotik kanpokoa da; horietatik, %46 atzerritarrek dira, Frantzia, AEB, Britainia Handia eta Alemaniakoak nagusiki.



Ondoren, alderdi aipagarri batzuk adierazten dira:

- *Motozikletaren artea* erakusketak 870.000 bisitari izan zituen eta Guggenheim Bilbao Museoa inauguratu zenetik publikoari dagokionez arrakasta handiena izan duen erakusketa izan da.
- 2000ko uztailean eta abuztuan, Museoak bere eguneroko ordutegia zabaldu zuen 9:00etatik 21:00etara, hain zuzen ere bere bisitariei zerbitzu hobea eskaini eta jende gehiagoren eskariari erantzutearren .
- *Guggenheimeko gauak*. Bilbaoko Aste Nagusian zehar, Museoak hiriko ospakizunetan parte hartu zuen eta horretarako bere ateak gauz ere zabaldu zituen, 21:00etik goizaldeko 1:00etara bitartean, hain zuzen. Horrek Museoa bisitatzeko, bertako jatetxean afaltzeko edota Atrioan kopa bat hartzeko aukera eskaintzen zuen, horrela gastronomia eta kultura konbinatuz.
- Bisitarien %98ak Museoa bisitatzeari gomendatzen du eta %79ak berriro etortzeko asmoa du. Horiexek dira Guggenheim Bilbao Museoak 2000ko apirilean bisitarien atsegintasunari buruz egin zuen azterlanaren datu adierazgarrienak. 1etik 9ra bitarteko eskala batean, bisitarekin lortutako batez besteko atsegintasun-maila 7,71koa izan zen, eta Museoaren zerbitzuak 8 puntutik gorako mailatan baloratu ziren.
- 2000ko maiatzaren 2an, NBCren *Today* programa ezaguna Museotik emititu zen zuzenean. Hurrengo bi hilabeteetan zehar, AEBtik etorritako bisitarien portzentajea %45ean igo zen 1999 urtearekin konparatuz. Gaur egun, herrialde horretatik etorritako bisitari atzerritarrek bigarren lekuan daude, Frantziatik datozenen atzetik, hain zuzen.
- Dohain eskaintzen diren bisita gidatuak %12an gehitu dira jendearen eskari handiagoari erantzuteko eta Museoan erakusten den artea hobeto preziatzen laguntzeko.

## 4. HEZKUNTZA-JARDUERAK

2000. urtean zehar, 238.000 pertsonak parte hartu dute Guggenheim Bilbao Museoaren hezkuntza-programetan. 14 hezkuntza-jarduera gehiago dago orain, hain zuzen ere 1999ko urtean eskaintzen ziren 28 jarduerari gehitu zaizkienak. Beraz, guztira 42 programa dira aurten eskaini direnak.

Guggenheim Bilbao Museoaren hezkuntza-programazioaren asmoa ahalik eta publiko zabalena kontuan hartzea izan da eta horren arabera hezitzaile, publiko orokor, ikasle, familia eta Museoaren Lagunentzako jarduerak antolatu dira hizkuntza desberdinetan (euskara, gaztelania, ingelesa eta abar).

Aipatu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoan ikasle diren haur eta gazteen ia %20ak parte hartu duela Museoak eskainitako hezkuntza-jardueraren batean. Gainera, hezkuntza-programetan parte hartu duten ikasleen %20a beste autonomia erkidego batzuetakoak dira.

2000. urteko berrikuntza nagusien artean hauek dira aipagarrienak:

- Boluntarioen Programa. 2000ko uztailean martxan jarri zen programa honen helburua ahal den neurrian Lagunen erkidegoak Museoaren jardueretan parte har dezan lortzea da, bertako lanetako batzuetan laguntzeko. Gaur egun, 51 pertsona eskuzabaltasun osoz ari dira Museoarekin elkarlanean Bisitarietako Arreta Arloan, Hezkuntza Arloan eta Museoaren Lagunen Arloan.
- *Artea ikasbide*. 99/00 ikasturtean zehar, 120 hurrek parte hartu zuten programa honetan. Haur horiek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak ziren eta 575 lan aurkeztu zituzten ekainean eta uztailean zehar Museoaren aretoetako batean izan zen erakusketan. 00/01 ikasturtean zehar, programa didaktiko honek artista ospetsuen lankidetzat du, horien artean Manu Muniategiandikoetxea, *Gure Artea* lehiaketaren irabazlea.
- Minusbaliotasun fisikoak edo psikikoak dituzten pertsonentzako bisita gidatuak. Esperientzia berritzaile hau gorrentzako zeinu bidezko hizkuntzaz eskaintzen diren bisitekin jarri zen martxan, eta ondoren itsuentzat diseinatutako bisita bereziekin eta minusbaliotasun psikikoak dituzten pertsonentzako ibilbide gidatuekin zabaldu da.
- *Utzi zure gida izaten*. Lema honen pean Guggenheim Bilbao Museoak kanpaina berezi bat abiarazi du, hain zuzen ere *Pertzepzio aldakorrak: Guggenheim*



*Museoaren Panza Bilduma* erakusketa dela eta bisitariak 60ko eta 70eko hamarkadetako mugimendu artistikoetara hurbiltzeko asmoz. *Utzi zure gida izaten* programa azaroan hasi zen eta 2001eko apirilera arte luzatuko da, erakusketan agertzen diren obrei eta artistei buruzko bisita gidatuak publikoari dohainik eskaintzeko.

- Bilboko Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia. ZINEBlrekin lankidetzan, Guggenheim Bilbao Museoak jaialdiari dagokion programazioaren zati bat proiektatu zuen.

## 5. GARAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

### A) Banakako Kideak

Inauguratu zenetik, Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunen programak 12.050 pertsonaren laguntza jaso du. 2000. urtean zehar, Lagunen kopuruak %10eko gehikuntza izan du; beraz, berrikuntza-indizea %88koa da. Kopuru horrek zera adierazten du, Guggenheim Bilbao Museoa Estatuko museoetatik Lagun gehiena duen museoa dela, eta Europan hirugarren lekuan dago Louvre eta Tate Gallery-ren atzetik.

Programa honen helburu nagusia bere kideak Museoa maiztasunez bisita dezaten animatzea da, horrela bien arteko harreman estua eta etengabea mantenduz. Lagunentzat soilik antolatutako jardueren artean, 2000ko abenduaren 18an burutu zena nabarmentzen da, hau da, Ateak Zabalik izeneko jardunaldia. Bertan 1.000 Lagunek aukera izan zuten erakusketa bat nola antolatzen den ezagutzeko, hau da, sortzen denetik hasi eta diseinuraino eta muntaketa-fase desberdinetaraino.

### B) Kide Korporatiboak

Kide Korporatiboen Programan parte hartzen duten enpresen kopurua 145ekoa da, eta horietatik 10 aurten sartu dira. Horietatik, 41 babesleak dira, 15 enpresa ongileak eta 89 enpresa elkartuak.

### C) Kanpora begira

Informazioari dagokionez, Guggenheim Bilbao Museoak 2000. urtean zehar izan dituen une garrantzitsuen artean NBC kateko *USA Today* goizeko magazinaren zuzeneko transmisioa dugu, hain zuzen ere AEBetan entzule gehien dituen programarena, maiatzaren 2an zuzenean Museotik eman zutena. Irailean, Sydney Pollack zine-zuzendaria Museora etorri zen Frank O. Gehry eta bere obrari buruz prestatzen ari den dokumentalaren sekuentzia batzuk filmatzera.

Urte honetan zehar Guggenheim Bilbao Museoa bisitatu duten pertsona ospetsuen artean, Michael Caine eta Jane Fonda aktoreak, John Waters eta Stephen Frears zine-zuzendariak eta Lou Reed musikaria ditugu, besteak beste.

2000. urtean Museoari emandako sariak ere gehitu egin dira. Hona hemen jaso dituen sariak:

- Komunikazioaren Saria, Euskadi Irratiak emandakoa, Euskal Herriaren irudi positiboa proiektatzean eta hedatzean egin duen ekarpenagatik;
- 2000. urteko Europako Museoaren Saria, European Museum Forum-ek ematen duena, Europako Kontseiluaren menpe dagoen organismoak, alegia;
- iBest Saria, Museoaren web-orriari epaimahaiak nahiz publikoak emandakoa, Arte eta Kultura kategorian;
- Buber Saria, 2000. urteko euskal web onenari emandakoa.

### Eragina hedabideetan

Guggenheim Bilbao Museoak 1999. urtean zehar Espainia, Portugal, Alemania, Frantzia, Italia eta AEBetako prentsa idatzian sortu zituen berrien balio ekonomikoa 1.120 milioi pezetatan gehitu zen aurreko urtearekin konparatuz. Izan ere 1998. urteko 2.530 milioietatik 1999. urtean ia 3.650 milioietara heldu ginen. Datu hauek Museoak estatuko eta nazioarteko prentsaren *clipping*-a egiteko kontratatutako enpresak egin duen ikerlan batetik ondorioztatu daitezke.

Lehenengoz gainera, ikerlan horrek antzerako zenbatezko azterketa bat barne hartzen du Museoak berriemaileak diren irrati eta telebista kate nagusien saio eta programetan izan duen presentzia neurtzeko. Neurketa horren ondorioen arabera Museoak irrati eta telebistetan izan duen presentziari egotzi dakioken balioa 1.700 milioi pezetakoa da.

## 6. MUSEOAREN ERAGIN EKONOMIKOA

- Inauguratu zenetik, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskal Herriko ekonomian izan duten eragina 100.000 milioi pezetatik gorakoa izan da, hasierako inbertsioaren kostua baino zazpi aldiz handiagoa den kopurua, alegia.
- Jarduera ekonomiko honek 15.000 milioi pezetatik gorako sarrera gehigarriak ekarri dizkie Euskal Ogasunei, BEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta PFEZ kontzeptuetan.
- 1997ko urritik Museoak izan dituen 3.600.000 bisitarietatik %83 Museoa ikustera soilik etorri da Bilbaora.
- Bisitari horiek zuzenean egindako gastuek balio erantsia eta aberastasuna sorrarazi dute Euskal Herriko ekonomian, kopurua 81.000 milioi pezetatik gorakoa izanik.
- Aberastasunaren sorkuntza horrek batez beste urtero 4.000 enplegu mantentzea ahalbidetu du.

Begiratu honekin batera doan dokumentua datu zehatzagoak ikusi nahi izanez gero.

## 7. 2001–2004 PLAN ESTRATEGIKOA

2000. urtea amaitzean 1997–2000 Plan Eragilearen indarraldia bukatu da. Plan Eragile hori Museoaren inspirazio-iturria izan da, lehenengo lau urteotan zehar izan diren jarduerena, alegia. Azkeneko urtean, Guggenheim Bilbao Museoak hausnarketa-aldi bati ekin dio, Museoaren egoerari, bere helburuei eta gaur egun duen testuinguruari buruz. Hausnarketa horren emaitza gisa berriro definitu dira Museoaren Zeregina eta Eredu Kontzeptuala, eta datorren laurtekorako Jarduera Plan berri bat ezarri da, 25 helburu eta 150 ekintza barne hartzen dituena.

Helburu horiek Museoaren jarduerak dituen funtsezko bost oinarriren inguruan taldekatzen dira:

### 1.- Sarea

Atal honi dagokionez datorren laurtekorako helburuak hauexek dira, Guggenheim Bilbao Museoaren nazioarteko sare batekoa izateak berekin dakarren lehiakortasun-abantailatik etekina ateratzea eta zenbait jarduera definitu eta egituratzea, hain zuzen ere Bilbaotik erakundeak bete dezakeen zeregin garrantzitsuari begira.

### 2.- Erakundeak

Erakundeek Museoan duten presentzia berezia kontuan izanik atal honi dagokion helburu nagusia hau da, sustapen eta jabetza gehien bat publikoa izanik, bere izaera instituzionalaren eta entitate pribatu baten ezaugarrien arteko oreka bilatzea. Helburu hori lortzeko, plan ekonomiko-finantzario bat ezartzera bideratutako ekintza batzuk burutuko dira. Plan horrek erakunde publikoetatik datozen urteko baliabideak arautuko ditu, bai eta aurrez ezarritako helburuak arrakastaz betetzeari lotutako neurri-parametroak ere.

### 3.- Programazioa

Atal honetan helburu desberdinak planteatu dira, batetik, Bilduma Iraunkorraren aurkezpenekin eta, bestetik, aldi baterako erakusketen egutegiarekin lotuak, horietan guztietan maila artistiko gorena eta publikoari zuzendutako orientabidea nagusi izanik.

### 4.- Bezeroak

Helburuak hauexek dira, bisitari, Banakako Kide eta Kide Korporatibo, produktuen erosle eta zerbitzuen erabiltzaileengandik datozen baliabideen lorpena bermatuko duten planak lantzea, hain zuzen ere autofinantzaketari begira Museoak ezarritako dituen xedek zurratzearen. Gainera, nazioartean diren hedabideen eremu guztietan Museoaren jardueren presentzia bermatuko duten ekintzak burutuko dira.

## 5.- Kudeaketa

Datozen lau urteotan, Guggenheim Bilbao Museoak kudeaketa-eredu berritzaile bat sendotu nahi du, kalitatean, partaidetzazko kulturaren eta bezeroarenganako orientabidean oinarritua, ahalik eta autofinantzaketa-maila handiena eta mezenasgoaren lankidetzaz lortzeko.

Plan Estrategiko honen funtsezko alderdiak Museoak argitaratu duen eta txosten honi erantsi zaion argitalpen batean jaso dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Nerea Abasolo  
Komunikazio Zuzendariordea  
MUSEO GUGGENHEIM BILBAO  
Abandoibarra, 2  
48001 Bilbao  
e-mail: [nabasolo@guggenheim-bilbao.es](mailto:nabasolo@guggenheim-bilbao.es)  
Tel.: 34 94 4359008  
Fax.: 34 94 4359010